

Hirigintza plangintzan genero ikuspegia txertatzeko gida bat

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak hirigintza plangintzan



Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoa

Okendo, 9 | 20004 Donostia / San Sebastián
berdintasuna@donostia.eus | www.donostia.eus

CHUECA URIA ANE MIREN, ARKITEKTOA
DE SIMON IRIGOYEN MARTINA, ARKITEKTOA
TXURRUKA ETXEZARRETA ANA, BERDINTASUN TEKNIKARIA

2022 UZTAILA

AURKIBIDEA

0. Sarrera	4
Gidaren aurkezpena	4
Zergatik genero ikuspegia txertatu hirigintza plangintzan?	5
1. DONOSTIAKO UDALAREN Generoaren arabeko eraginaren aurretiazko ebaluazioa (GEAE) egiteko jarraibideak	7
1.1. ZER DA GEAE?	7
Zergatik egin GEAE hirigintza plangintzan?	7
1.2. NOIZ EGIN BEHAR DA GEAE BAT?	8
GEAE bat egin behar al zaie hirigintza proiektu guztiei?	8
1.3. NORK EGITEN DU GEAE-A?	9
Nori dagokio GEAEa egitea?	9
Zein da organo aholku emaile eta egiaztatzailea?	9
1.4. NOLA EGIN GEAE BAT? FASEAK	10
1. Fasea: generoaren arabeko ebaluazioa egitea dagokion jakiteko aurreanalisisa	11
2. Fasea: eraginaren ebaluazioa: egoeraren analisisa eta generoaren arabeko eraginaren ebaluazioa ..	12
3. Fasea: generoaren arabeko ebaluazioaren txostena	13
4. Fasea: egiaztatzea	15
5. Fasea: memoria	15
I ERANSKINA · GEAE-KO 2. FASEAN AZTERTU BEHARREKO IRIZPIDEAK	16
1. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA	16
2. BALIABIDEETARAKO SARBIDEA	17
3. ERABAKIAK HARTZEN PARTE HARTZEA	18
4. GIZARTE-ARAU ETA BALIOAK	20
5. BERDINTASUN-ARLOKO ARAUDIA	21
6. HIRI-ESPAZIOEN EBALUAZIOA (Collectiu Punt 6)	22
6A. HURBILTASUNA	22
6B. AUTONOMIA, SEGURTASUN PERTZEPZIOA	22
6C. ANIZTASUNA, ESPAZIO PUBLIKOA ETA IRISGARRITASUNA	22
6D. BIZITASUNA	30
6E. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA	322
6F. ORDEZKAGARRITASUNA ETA HIRI-SEINALEZTAPENA	34
2. Bibliografia	35

0. Sarrera

Gidaren aurkezpena

*Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak hirigintza plangintzan genero ikuspegia txertatzeko **Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa** (hemendik aurrera, GEAE) egiteko gida hau jartzen du eskura. Gida honen helburua, **Donostiako Udaleko markoan hirigintza-plangintzan diharduten organo bultzatzaileei lagungarri izango zaien tresna** izatea da.*

Hirigintza-plangintzan genero ikuspegia txertatzeko tresna tekniko honen bidez, gure auzo eta hiriak inolako diskriminaziorik eragin gabe pertsona ororen beharrei erantzuten dieten ebaluatu ahal izango da. Hirigintza alorra antolatzea xede duten proiektuei ebaluazioa gauzatzean, proiektu hauen aplikaziotik lortuko den emaitza optimizatzea izango da helburu, horretarako hobekuntzak proposatuko direlarik.

Gida hau osatzeko garaian, ondorengo gida zein tresnak erabili dira nagusiki, bertako informazio eta argibideak esku artean duzun dokumentu honetan bateratuz:

- *Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2019an onarturiko ‘Generoaren Arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa egiteko jarraibideak’.*
- *EMAKUNDEren ‘Generoaren arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa’ azalpen-gida (2018).*
- *Adriana Ciocchetto-ren Espacios para la Vida Cotidiana. Auditoría de Calidad Urbana con perspectiva de Género. Bartzelona, Col·lectiu Punt 6 (2014).*

Zergatik genero ikuspegia txertatu hirigintza plangintzan?

Hirigintzak funtsezko garrantzia du pertsonen bizitzan, gizarte-erabileren euskarri fisikoa osatzen duten espazioen konfigurazioa zehazten duen diziplina baita. Espazioen erabilera ezberdinak eta horietan egiten diren jarduerak **eguneroko bizitzaren**¹ esperientziaren araberakoak izango dira, eta, beraz, ezinbestekoa da horiek aztertzea, pertsonak egunerokotasunean egiten dituzten zereginen arabera.

Gizon eta emakumeok hiria modu ezberdinean erabili eta bizi dugula dioen premisatik abiatzen gara. Ezberdintasun honen baldintzatzaile nagusiak lanaren banaketa eta segurtasun pertzepzioa direla esan dezakegu. Hiria, forma eta funtzioaren bidez jarduera mota jakin batzuen arabera errotuta dago, non **ekoizpenarekin lotutako espazioak eta jarduerak lehenetsi diren zaintzarekin lotutako lan erreproduktiboaren**² **gainetik**. Azken hau historikoki emakumeen esku egon den zeregina izan da. Hau oinarri bezala hartuz, esan dezakegu hirigintza plangintza ez dela neutrala, diseinuaren atzean intenzionalitate bat baitago.

Hori dela eta, pertsonak egunerokotasunean egiten dituzten zereginak eta zeregin horiek beren gain hartzen dituzten genero-rolen arteko aldeak **ikuspegi intersektionalarekin** aztertzea proposatzen da, esperientzien aniztasuna kontuan hartuta, izan emakume edo gizon, haur, gazte, heldu edo nagusi, bai eta aniztasun funtzionala, jatorria edo pertsonen errenta-maila gisako ezaugarriak ere kontuan hartuz.

Pertsona bakoitzari esleitutako **genero-rolaren arabera, eguneroko ibilbide desberdinak espazioaren erabileran islatzen dira zuzenean**. Bere buruaz bakarrik arduratzen den pertsona baten mugimenduak sinpleagoak eta linealagoak izango dira. Besteak zaintzeaz arduratzen den pertsona batek ordea mugimendu konplexuagoak eta poligonalagoak egingo ditu; esaterako, lanetik mendekotasuna duen pertsona baten beharrei erantzuteko jarduera eremuetara joan-etorriak. Beraz, esfera erreproduktiboa garatzeko behar den espazioa zabalagoa

¹Eguneroko bizitza: Eguneroko bizitzaren kontzeptuak gure egunerokoan edo noizean behin garatzen ditugun jarduera guztien garapena biltzen du. Eguneroko bizitza ezin da espazio partekatu batetik eta denbora mugatu batetik bereizi. Eguneroko bizitza = jarduerak + espazioa + denbora. (Col·lectiu Punt 6)

²Lan erreproduktiboa: bizikidetzaren unitate bateko pertsonak beren burua zaintzeko, familiako kideentzat edo beste familia batentzat egiten dituzten ordaindu gabeko jarduerak. Etxeko jarduerak ere deitzen zaie, etxebizitza, nutrizioa, jantziak eta zaintza ematearekin lotutakoak. CARRASCO BENGOA, Cristina eta SERRANO, Mónica. Compte satèl·lit de la producció domèstica (CSPD) de les llars de Catalunya 2001. Bartzelona: Generalitat de Catalunya, Institut Català de les Dones. Col·lecció Estudis 1, 2006.

izango da³, eta espazio horien baldintzen azterketa eta ebaluazioa ezinbestekoak izango dira, bidezkoagoak diren hiriak lortzeko bidean.

Genero-irizpideak hirigintza-plangintzan aplikatzeak bidezkoa eta zuzenagoa den gizarte baten garapena bultzatzen du, eragin zuzena baitu jardueren kokapenean, haien arteko erlazioan eta espazioen nolakotasunean⁴. Era berean, hiriaren garapen jasangarriaren alde egiten du⁵, eguneroko bizitzaren garapenerako hiri-eredu optimoa espazio- eta denbora- gertutasunean oinarritzen baita⁶. Mugikortasunari dagokionean, oinezkoak **ibilbide irisgarriak** lehenesten ditu eguneko jarduerak konektatzeko eta ekipamendu ezberdinak, saltoki eta garraioa etxebizitzetatik gertu kokatzea **erabilera mistoen** alde egin ahal izateko. Gainera, honek, pertsonen espazio desberdinak erabiltzeko duten **autonomiari** erantzuten dio; auzo eta **kaleen bizitasuna** bermatzen du ere, pertsonen egunerokoan elkar eragin eta zaindu dezaten eta **ordezkagarritasun aniztasuna** bultzatzen du, parte hartze eta identitateen errepresentazio berdintsu baten alde eginez.

Hiriko espazioen diseinuan genero-irizpideak zeharkotasunez txertatzeko, beharrezkoa da horiek eskala anitzean lantzea, espazio publikoen xehetasunetik hasita lurralde-eskalako irakurketaraino, plangintza orokorraren sektorizazioa ekidinez. Halaber, diziplinartekotasunaren bidez hirigintza alor ezberdinen ikuspuntutik aztertzea, eta ez arkitekturatik bakarrik. Hiria osotasun gisa aztertzen denean, urrutiko eskala batean, honako hauei buruzko datuak lortzen dira: berdeguneen banaketa, ekipamenduak eta zerbitzuak, garraioak, eta eremuen arteko konektagarritasuna eta irisgarritasuna. Hala ere, datu kuantitatibo nahiz kualitatiboak auzo eskalaren hurbiltasunetik ebaluatzea ezinbestekoa da⁷ errealitatea ulertzeko pertsonen eguneroko bizitzako esperientziatik; hiriko elementu bakoitzak eguneroko espazioen barruan nola funtzionatzen duen eta horiek behar ezberdinei nola erantzuten dieten aztertzeko.

³CIOCOLETTO, Adriana. Espacios para la Vida Cotidiana. Auditoría de Calidad Urbana con perspectiva de Género. Barcelona, Col·lectiu Punt 6, 2014.

⁴BOFILL LEVI, Anna. Guia per al planejament urbanístic i l'ordenació urbanística amb la incorporació de criteris de gènere. Barcelona, Institut Català de les Dones, 2008.

⁵SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés. Urbanismo con perspectiva de género. Sevilla, Instituto Andaluz de la Mujer, 2004.

⁶MIRALLES-GUASCH, Carme. "Dinámicas metropolitanas y tiempos de la movilidad. La región metropolitana de Barcelona, como ejemplo". Anales de Geografía vol. 31 p. 125-145, 2011.

⁷MUXÍ MARTÍNEZ, Zaida. "Ciudad próxima: Urbanismo y género". Ciudad y Territorio 75: La ciudad Habitable, 2006.

1. DONOSTIAKO UDALAREN Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa (GEAE) egiteko jarraibideak

Jarraian, Donostiako Udaleko Gobernu Batzordeak 2019ko martxoaren 26an onartutako Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak zehazten dira, hirigintza alorra antolatzea xede duten proiektuetan zentratuz. (Espediente zenbakia: 2019-BEST 00001)

1.1. ZER DA GEAE?

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa (hemendik aurrera, GEAE), toki-administrazioek beren aragintza- eta administrazio-jardueran berdintasunaren printzipioa barneratzea helburu duen tresna da.⁸

Zergatik egin GEAE hirigintza plangintzan?

*Aurreko lerroetan aipaturiko jarduera horien artean, **hirigintza alorra antolatzea xede duten proiektuen azterketan, hiri-ebaluaziorako tresna bat da GEAE, hirigintzan genero-ikuspegia zeharka nola aplikatzen den egiaztatzeko aukera ematen duena; bai espazioetan, bai haien kudeaketan, ingurune jakin bateko alderdi sozial, fisiko eta funtzionalen azterketatik abiatuta.***

*Hirigintza plangintzan genero ikuspegia txertatzeko eginkizun hau, non **hiria antolatzeko plan berriak** hartzen ditugun kasu praktiko bezala, **berauek osatzeko hainbat aspektu berrikustetik** igarotzen da: testuinguruaren analisia egiteko aintzat hartu diren **datuak** (eta aintzat hartu ez direnak), errotik planteatutako **hiri-eredua, lurzoruaren kalifikazio irizpideak, kale eta harreman-espazioen ezaugarriak, etab.***

⁸ DONOSTIAKO UDALA. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak. 2019ko martxoaren 26an Gobernu Batzordeak onartua. (Espediente zenbakia: 2019-BEST 00001)

1.2. ZEIN KASUTAN EGIN BEHAR DA GEAE BAT?

GEAE bat egin behar al zaie hirigintza proiektu guztiei?

Donostiako Udaleko Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideetako aplikazio eremu objektiboan zehazten denari jarraiki:

Oro har, **hirigintza alorra antolatzea xede duten proiektuak** egiten direnean, aurretiaz generoaren araberako eraginari buruzko txostena egingo da.

Nolanahi ere, salbuesitakotzat hartuko dira hirigintza alorra antolatzea xede duten proiektu hauek:

- a) **Xehetasun azterketei** buruzkoak.
- b) Hirigintza Antolamenduko **udal ordenantza osagarriei eta katalogoei** buruzkoak, baldin eta generoaren ikuspuntutik garrantzirik ez badute, emakumeen eta gizonen egoeran eraginik ez dutelako edo eragin hori hutsaren hurrengoa delako.
- c) **Indarrean dauden hirigintza antolamenduko tresnak aldatzekoei buruzkoak**, baldin eta aldaketa funtsezkoa ez bada emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez.

*Salbuespenaren arrazoia edo kausa guztien justifikazioa adierazi behar da **salbuespena justifikatzeko txostenean**, eta arauaren edo administrazio-egintzaren espedienteetan jaso behar da txosten hori, *Berdintasun Bulegoak* edukia ezagutu dezan.⁹*

⁹ EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa' gida, 2018.

1.3. NORK EGITEN DU GEAE-A?

Nori dagokio GEAEa egitea?

Generoaren araberako aurretiazko ebaluazioa egiteko administrazio organo eskuduna **organo sustatzailea** bera da; hau da, ebaluatu beharreko administrazio jardura edo hirigintza alorra antolatzea xede duen proiektua sustatzen duen administrazio unitateko arduraduna. Horretarako, **Berdintasun Bulegoaren** laguntza eta aholkularitza izango du.

GEAEk legeak esleitzen dion funtzioa bete dezan eta planteatzen den hirigintza-prozesuaren emaitzan benetako eraginik ez duen izapide formal hutsa izan ez dadin, honako hau bermatu behar da¹⁰:

- a) *GEAE egitea esleitzen zaion lantaldeak, bai hirigintzaren arloan, bai **emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan formakuntza aurreratua eta sentsibilizazioa** izatea.*
- b) *GEAEaren egiaztapen prozesuaren ondorio diren proposamenak kontuan har daitezela eta horren ondoriozko **hobetzeko proposamenak egitea, edo hobekuntzak ez gehitzearen arrazoiak azaltzea.***

Zein da organo aholku emaile eta egiaztatzailea?

Donostiako Berdintasun Bulegoak lagunduko die eta aholkuak emango dizkie administrazio organo eskudunei, generoaren araberako ebaluazioa egiteko prozeduran. *Bide honetan, hirigintza plangintzan genero ikuspegiaren inguruan jakintza berriaren berri emateko eginkizunaren parte bezala aurkezten du gida praktikoa hau.*

Horrez gain, Berdintasun Bulegoa organo egiaztatzailea ere izango da, generoaren araberako aurretiazko ebaluazioa egiteari dagokionez; horretarako, egoki irizten dizkion nahitaezko txostenak igorriko dizkie. Berdintasun Bulegoak igorritako **egiaztapen txostena nahitaezkoa izango da**, eta espedienteari gehituko zaio, araua, egintza, plana edo programa onartu baino lehen -hasierako onespena baino lehen, hala badagokio-. Egiaztapen txosten hori eskuratu beharrekoa da, halaber, generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egin zaion arau, egintza, plan edo programa nabarmenki aldatu egin bada izapidetu bitartean.


Berdintasun Bulegoko langile **teknikariek oharrak edota iradokizunak** adierazteko dokumentuak egin ahalko dituzte. Dokumentu horiek araua, egintza, plana edo programa sustatu duen organoari helaraziko zaizkio, bai eta kasuan kasuko arloko zinegotziari eta zuzendaritzari edota kudeaketa taldeari, haien berri izan dezaten; dokumentu horiek, gainera, espedientean gehituko dira, eta **ez dira lotesleak izango**.

¹⁰ EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa' gida, 2018.

1.4. NOLA EGIN GEAE BAT? FASEAK.

Generoaren araberako aurretiazko ebaluazioak **bost fase** ditu:


1. FASEA | GENEROAREN ARABERAKO EBALUAZIOA EGITEA DAGOKION JAKITEKO AURREANALISIA



2. FASEA | ERAGINAREN EBALUAZIOA: EGOERAREN ANALISIA ETA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN BALORAZIOA



3. FASEA | GENEROAREN ARABERAKO EBALUAZIOAREN TXOSTENA



4. FASEA | EGIAZTATZEA

4. faseko emaitza: EGIAZTATZE TXOSTENA (Berdintasun Bulegoak)

5. FASEA | MEMORIA

1. FASEA:


GENEROAREN ARABERAKO EBALUAZIOA EGITEA DAGOKION JAKITEKO AURREANALISIA

Fase honetan, generoaren araberako ebaluazioa egitea dagokion organo eskudunak aurretiko txosten bat prestatuko du, **xede izanik aztertzea araua, egintza plana edo programa ebaluazioa egitetik salbuetsita dagoen**, jarraibide hauek aplikazio eremu objektiboaren arabera. (Ikus 1.2. puntua; Zein kasutan egin behar da GEAE bat?)

Generoaren araberako ebaluazioa egitea dagokion jakiteko aurretiko txostena soilik igorri ahal izango da baldin eta salbuesteko arrazoiaren balorazioak ez badu behar prozeduraren bigarren fasean egin beharreko **informazio bilketa eta analisisa**. Kasua hori bada, salbuesteko arrazoiak hirugarren fasean igorri beharreko txostenean justifikatuko dira.

Aurretiko txostena espedientean gehitu eta Berdintasun Bulegora bidaliko da, han edukia ezagutu dezaten.

1. FASEA | GENEROAREN ARABERAKO EBALUAZIOA EGITEA DAGOKION JAKITEKO AURREANALISIA



2. FASEA:

ERAGINAREN EBALUAZIOA: EGOERAREN ANALISIA ETA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA

Fase honetan, Aurretiko Txostenean salbuetsita ez dagoela jaso baldin bada soilik izapidetzekoa den fasean, generoaren arabera ebaluazioa egitea dagokion organo eskudunak bereizita jaso behar du arauak, egintzak, planak edo programak eragina izango duen eremuan **emakumeek eta gizonek duten egoera sozialari buruzko informazioa, kuantitatiboa zein kualitatiboa**. Horren helburua da, lehenik eta behin, **identifikatzea** generoa dela eta aurrez egon daitezkeen **desberdintasunak**, eta, bigarrenik, horren arabera, **ebalutzea** ea arauak, egintzak, planak edo programak **hautemandako desberdintasunak murrizten edo desagerrarazten lagunduko duen ala ez**, eta aplikatuko den gizarte testuinguruan emakumeen eta gizonen **berdintasuna sustatuko duen ala ez**.

Informazio hori irizpide hauen arabera bilduko da: *(Ikus I ERANSKINA: GEAE-KO FASEAN AZTERTU BEHARREKO IRIZPIDEAK)*.

- 1) EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA.** Arauaren, egintzaren, planaren edo programaren onuradun edo hartzaile izan daitezkeen artean zenbat emakume eta gizon dauden eta antzeko onura lortzeko zer eragozpen dauden.
- 2) BALIABIDEETARAKO SARBIDEA.** Arauaren, egintzaren, planaren edo programaren xede diren sektorean edo testuinguruan desberdintasunen sorreran eragin nabarmena duten baliabideak zer neurritan eskura ditzaketen emakumeek eta gizonek.
- 3) ERABAKIETAN PARTE-HARTZEA.** Erabakiak hartzen diren esparruetan emakumeek eta gizonen parte hartzea.
- 4) GIZARTE-ARAUAK ETA BALIOAK.** Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen jatorrian eta desberdintasun horiek oraindik ere egotean eragina duten gizarte arauak eta balioak.
- 5) BERDINTASUN ARAUDIA.** Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko araudia betetzea.

Horretarako, funtsean, arauak, egintzak, planak edo programak hartzen duen testuinguruari, esparruari edo **sektoreari buruzko informazio iturri hauek erabili** behar dira: sexuaren arabera bereizitako estatistika ofizialak; genero harremanei buruzko azterketak, ikerketak edo iritzi inkestak; eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eskubide, agindu eta helburuak jasotzen dituzten arau juridikoak eta beste dokumentu batzuk.

*Jarraibideetan azaltzen diren eta azaldu berri ditugun bost irizpideen azterketaz gain, Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoak, baliagarri deritza **hirigintza alorra antolatzea xede duten proiektuen kasuan, ondorengo ere gauzatzea: planaren aplikazio-eremuan hiri-espazioaren ebaluazioa (Col·lectiu Punt 6)**.*



Irizpide hauetariko bakoitzaren inguruan fitxa bana sortu da, EMAKUNDEren ‘Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa’ azalpen-gidari jarraiki, eta bereziki hirigintza alorrean zentratuta. (Ikus **I ERANSKINA: GEAE-KO FASEAN AZTERTU BEHARREKO IRIZPIDEAK**).

3. FASEA: GENEROAREN ARABERAKO EBALUAZIOAREN TXOSTENA

Generoaren araberako ebaluazioa egitea dagokion organo eskudunak Bigarren fasean egindako ebaluazio prozesuaren emaitza generoaren araberako aurretiazko ebaluazio txosten batean jasoko du, eta espedientean gehitu eta eta Berdintasun Bulegora bidaliko du.

- o Ebaluazio prozedura egin ondoren erabaki bada araua, egintza, plana edo programa generoaren araberako ebaluazioa egitetik **salbuetsita dagoela**, hala adieraziko da eta **salbuesteko arrazoia zein den behar bezala justifikatuko da**.

[**Emitza: SALBUESPENA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA** (ikus 40/2012 Ebazpeneko I ERANSKINA)]

- o Ebaluazio prozedura egin ondoren erabaki bada araua, egintza, plana edo programa dagoen bezala utziz gero **ondorio negatiboak** eragingo dituela berdintasunean, hau da, generoaren araberako aldeak areagotu edo bere horretan jarraituko dutela, **hobetzeko aldaketak egingo dira**.

Hobetzeko aldaketa horiek emakumeen eta gizonen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko izan daitezke, edo berdintasuna lortzeko indarrean dauden helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatzeko zein areagotzeko ere bai, kontuan hartuta arau proiektuaren, egintzaren, planaren edo programaren edukia.


[**Emitza: GEAE TXOSTENA**, ebaluazio prozesuaren emaitza, hobetzeko egingo diren aldaketak eta eragin negatiboa neutralizatzeko neurriak (ikus 40/2012 Ebazpeneko II ERANSKINA)]

- o Ebaluazio prozedura egin ondoren erabaki bada araua, egintza, plana edo programa dagoen bezala utziz gero **ondorio positiboak** eragingo dituela berdintasunean, hori hala dela adierazi eta **ondorio hori behar bezala justifikatuko da**.

Eragin positiboa aurreikusten bada ere, eragin positibo hori indartzeko neurriak planteatu ahal izango dira. Neurri horiek bi proposamen-motatan bil daitezke: lehenak eta oinarrizkoenak, arau, egintza, plan edo programaren edukiari berari dagozkio; eta bigarrenak, berriz, etorkizuneko arau, egintza plan edo programaren aplikazioari, hala nola beste akzio batzuk hartzeari, berdintasunaren alde jasotako helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatu eta areagotzeko¹¹.

[Emaizta: GEAE TXOSTENA, ebaluazio prozesuaren emaitza eta eragin positiboaren justifikazioa (+ eragin positiboa indartzeko neurriak) (ikus 40/2012 Ebazpeneko II ERANSKINA)]

3. FASEA | GENEROAREN ARABERAKO EBALUAZIOAREN TXOSTENA



¹¹ Eusko Jaurlaritzaren 2012ko abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpena.

4. FASEA: EGIAZTATZEA

Berdintasun Bulegoak egiaztatuko du generoaren araberako aurretiatzko ebaluazio txostenaren edukia. **Egiaztatze-prozedura** horren emaitza **txosten** nahitaezko batean jasoko da.

*Berdintasun Teknikariek **oharrak edota iradokizunak** adierazi ahalko dituzte egiaztapen txostenaren bidez. Era berean, etorkizunean barneratzeko modukoak izan daitezkeen beste neurri batzuk identifikatzea gerta liteke, kasuko arau, egintza, plan edo programan barnera ezin daitezkeenak GEAEa egiten den unean¹².*

Organo sustatzaileak behin egiaztapen txostena jasotzen duenean, araua, egintza, plana edo programa aztertuko du, **txostenean adierazitako hobetzeko proposamenak gehitze aldera**, edo ez badira gehitzen, berriz, arrazoiak azaldu beharko ditu.

5. FASEA: MEMORIA

Araua, egintza, plana edo programa sustatu duen organoak azalpenezko memoria bat gehituko du espedientean, han generoaren araberako eraginaren ebaluazioarekin zerikusia duten izapideak (bigarren fasetik laugarren fasera bitartekoak) azaltzeko, bai eta izapide horien emaitzak azaltzeko ere.

¹² EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiatzko Ebaluazioa' gida, 2018.

I ERANSKINA • GEAE-KO 2. FASEAN AZTERTU BEHARREKO IRIZPIDEAK

1. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA	
1. Egoeraren analisia	2. Eraginaren balorazioa
Egoeraren analisia egiteko, emakumeen eta gizonen banaketari buruzko datuak eta estatistikak bildu behar dira arauaren, egintzaren, planaren edo programaren aplikazio-eremuan, eta emakumeen eta gizonen artean izan daitezkeen desberdintasunak aztertu behar dira. Emakumeen eta gizonen arteko dibertsitateari erreparatuko zaio, eta, halakorik baldin bada, diskriminazio anitzeko egoerak eta zehar-faktore giltzarriak identifikatuko dira.	Abiapuntuko egoera horri behatzean, bigarren aztertu behar den alderdia da ea ematekoa den arauak, egintzak, planak edo programak, une horretan egituratuta dagoen moduan, laguntzarik emango ote duen emakumeen eta gizonen presentzian hauteman diren desberdintasunak murrizteko.
EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretzako Ebaluazioa' gida, 2018.	

Analisirako zenbait eremu:

SEXUAREN ARABERA BEREIZITAKO DATUAK

- **Biztanleari buruzko datuak**
 - EAEko, Gipuzkoako eta Donostiako biztanleria
 - Auzoetako biztanleria
 - Sexuaren eta adinaren araberako piramidea
- **Enplegua eta Errenta pertsonala**
 - Udalerriko soldata-arraila
 - Langabezia-tasa, diru-sarrerak
 - Bataz besteko errenta pertsonala
 - Jarduera-tasa
 - Etabar
- **Emakume eta gizonen presentzia sektorean edota arauaren, egintzaren, planaren edo programaren jarduera-eremuan.** Adibidez: langile kopurua, ikasle kopurua, erabiltzaile kopurua...
- **Mugikortasun-azterketetako datuak**
- **Etabar**

2. BALIABIDEETARAKO SARBIDEA

1. Egoeraren analisia	2. Eraginaren balorazioa
Une honetan, aztertu behar da funtsezko baliabideek (besteak beste, denborak, espazioak, diruak eta baliabide ekonomikoek, enpleguak, hezkuntzak eta informazioak, ugalketa-lanak, etxebizitzak, osasunak, garraiobideak eta aisiak) zer-nolako banaketa duten emakumeen eta gizonen artean arauaren, egintzaren, planaren edo programaren aplikazio-eremuan . Azterketa hori egitean, aintzat hartu behar da nork egiten dituen egitekoak, nork duen baliabideetarako sarbidea, zer alde edo diferentzia dauden eta zergatik, etab.	Abiapuntuko egoera horri behatzean, bigarren aztertu behar den alderdia da ea ematekoa den arauak, egintzak, planak edo programak, une horretan egituratuta dagoen moduan, laguntzarik emango ote duen emakumeen eta gizonen baliabideetarako sarbidean hauteman diren desberdintasunak murrizteko .

EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa' gida, 2018.

Analisirako zenbait eremu:

Arau, egintza, plan edo programak xede duen eremu edo inguruneak **zein baliabideetarako sarbidean izango du eragina, eta nola:**

- **Jarduera ekonomikoko baliabide fisikoetara sarbidea**
- **Ekipamenduetara sarbidea** (hezkuntza, kultur... ekipamenduak)
- **Zaintza-ekipamenduetara sarbidea** (mendeko adin txikiko eta adinekoen zaintza)
- **Espazio publikoetara sarbidea**
- **Espazio berdeetara sarbidea**
 - **Mugikortasuna** (komunikazioen hobekuntza, garraio publikora sarbidea, aparkalekuetara sarbidea - garraio pribatua zein bizikleta-...)
- **Baliabide ekonomikoetara sarbidea**
 - Etxebizitzara sarbidea (alokairuan zein jabetzan)
- **Denbora** (eguneroko bitzitza garatzeko beharrezkoak diren lekualdaketetan denbora aurrezte)
- **Prestakuntzara sarbidea (formakuntza)**
- **Teknologia berrietara sarbidea**
- **Enplegua**
- **Etabar**

3. ERABAKIETAN PARTE HARTZEA

1. Egoeraren analisia	2. Eraginaren balorazioa
Abiapuntuko egoera identifikatzeko, aztertu behar da zer-nolako partaidetza duten emakumeek eta gizonek arauak, egintzak, planak edo programak egiteko eta betetzeko prozesuan , eta hauek arautu nahi duen esparruan hartzen diren erabakietan .	Abiapuntuko egoera identifikatu edo zehaztu ondoren, aztertuko da, bigarrenik, ea ematekoa den arauak, egintzak, planak edo programak , une horretan egituratuta dagoen moduan, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua aurreikusten ote duen edo, gutxienik, eremuan duen presentziaren antzeko ordezkari izango dutela aurreikusten ote duen.

EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa' gida, 2018.

Analisirako zenbait eremu:

Genero-arloko ekintzak eta neurriak txertatzeko garaian lehentasunezko arloetako bat da **governantza**, EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak barne hartzen dituzten 8 arloen artean.

Governantzari dagokionez, **desberdintasun esanguratsuenek honako eremu hauetan dute eragina**¹³: emakumeen presentzia txikiagoa herritarren partaidetzako prozesuetan eta lantalde teknikoetan; ahuleziak generoari buruzko ezagutza aditua integratzeko garaian, politika, plan eta jarduketan diseinu, exekuzio eta jarraipeneko faseetan.

1) EKIPO TEKNIKOAK ETA POLITIKOAK. ERABAKIETAN ORDEZKAGARRITASUNA

Emakumeak apurka ari dira txertatzen hirigintzaren arlo ezberdinez arduratzen diren enpresa eta erakundeetako zuzendaritza-postuetan; hala eta guztiz ere, erantzukizun handiko maila horietan ez dago oraindik emakume nahikorik hiriak diseinatzean eta horietan esku hartzean bestelako sentikortasuna eranstean duten ikuspegiak gehitzeko.

Testuinguru honetan, **baliagarri zaigu aztertzea planari dagozkion erabakiak hartzeko eremuetan sexuen artean zer nolako oreka dagoen**.

- Planaren onarpenean parte hartuko duten emakume eta gizonak: alkatetza eta zinegotziak
- Dokumentua egitearen eta erabakiak hartzearen arduradun diren pertsona teknikoak (emakume eta gizonak):

¹³ SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés. *Perspectiva de Género en las Directrices de Ordenación Territorial del País Vasco. Propuestas de acción*, 2016.

- zuzendaritza teknikoa
- erredaktorea
- kanpoko laguntzaileak
- udaleko hirigintzako arkitektoa
- udaleko planeamendu saileko burua
- hirigintzako zinegotzia
- etabar

2) HIRITARREN PARTAIDETZA PROZESUAK GENERO PERSPEKTIBAREKIN

Emakumeek hirigintzan parte hartzea funtsezkoa da genero-roleri hobeto erantzungo dieten auzoak eta hiriak sortzeko. Prozesu osoan ezagutza ez-aditua txertatzeak aukera ematen du espazio publikoari, ekipamenduei eta mugikortasunari buruz esperientzian eta bizitakoan oinarritutako ikuspegia kontuan hartzeko, eta hori, oro har, abiapuntuko diagnostiko adituetatik eta esku hartzeen lehentasunetatik kanpo geratu ohi da. Emakumeak partaidetza-prozesuetan inplikatzeko eta prozesu horietan lidergoa bultzatzeak aurrerapen garrantzitsuak ekar ditzake gizarteratzearen, gizarte-berrikuntzaren eta hiri-politiken eraginkortasunaren eremuan¹⁴.

Testuinguru honetan, **aztertuko dugu planari loturiko partaidetza prozesurik aurreikusten den, eta nolakoa izango den.**

- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea errazteko estrategiak aplikatuko diren (ordutegi anitzen eskaintza, eztabaidarako formatu ezberdinak, adin txikikoentzako zaintza zerbitzuaren eskaintza, saio formatu anitzak -online zein presentziala-, talde espezifikoei banatzea eztabaidarako...)
- Komunikazio zabala egingo den, kolektibo guztietara hel dadin deialdia.
- Talde zaurgarriek parte hartzeko antolatutako deialdia izango den. Talde hauek, hainbat faktoreren arabera: sexua, adina, etnia/arraza, gaitasun funtzionala, estatus sozioekonomikoa, famili egoera.
- Prozesuko datu jasoketa eta analisisa sexuen arabera bereizita egingo den.

¹⁴ SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés. *Perspectiva de Género en las Directrices de Ordenación Territorial del País Vasco. Propuestas de acción, 2016.*

4. GIZARTE-ARAU ETA BALIOAK ¹⁵

1. Egoeraren analisisia	2. Eraginaren balorazioa
<p>Analisiaren atal honetan zehaztu behar da araua, egintza, plana edo programak arautzen duen esparruarekin zuzenean lotuta dauden edo egon daitezkeen gizarte-arauek eta balioek zer eragin duten honako hauen gainean:</p> <ul style="list-style-type: none">- ezarritako rol tradizionalen gainean.- sexuaren araberako lan-banaketaren gainean.- emakumeen eta gizonen jarrera eta jokabideen gainean.- gizonei eta emakumeei edo ezaugarri maskulino eta femeninoei ematen zaien balio desberdinen gainean.	<p>Abiapuntuko egoera zehaztu ondoren, aztertu behar da arauak, egintzak, planak edo programak planteatzen dituen helburuak eta neurriak lagungarri izango ote diren gizarteak emakumeekiko edo gizonekiko lotzen dituen gizarte-arauak edota balioak aldatu edo gaitzetzeko.</p>
<p>EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa' gida, 2018.</p>	

OHARRA: Hirigintza-plan batek gizarte-arau edota balioak aldatzeko orduan izan dezakeen inzidentzia baxua den kasuetan, atal honetan neurriak proposa daitezke, hirigintza-plan horretatik harago joan daitezkeenak. Adibidez: neurriak proposa daitezke, planak aurreikusten duen eraikina kudeatuko dutenen enplegu-politikak gai horri hel diezaion eta emakumeen autonomia ekonomikoa hobetzen lagun dezan.

¹⁵ OHARRA: 4. GIZARTE-ARAU BALIOAK eta 5. BERDINTASUN-ARLOKO ARAUDIA irizpideak aztertzeko orduan, kasuan kasuko hirigintza-planak gai hauetan izan dezakeen inzidentzia kontutan harturik egingo da azterketa. Aurreikusi daiteke, 1. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA, 2. BALIABIDEETARAKO SARBIDEA eta 3. ERABAKIETAN PARTE HARTZEA irizpideak sakonago aztertzeko gaiak izango direla, hauekin alderatuz.

5. BERDINTASUN-ARLOKO ARAUDIA ¹⁶

1. Egoeraren analisisia	2. Eraginaren balorazioa
Identifikatu behar da arauek eta bestelako tresna juridikoek (esaterako, planek) zer agindu juridiko ezarri dituzten , arau, egintza, plan edo programaren aplikazio-eremuan, diskriminazioa saihestu eta berdintasuna sustatzeko .	Ziurtatu behar da arau-, egintza-, plan- edo programa-proiektuak bete egiten dituela agindu horiek , eta alderdi horiek hobetzea arautzen ote duen begiratuko da.
EMAKUNDEren 'Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa' gida, 2018.	

Hirigintza-plangintzari buruzko dokumentu baten kasuan, salbuetsita egon ezean, honek GEAE txostena eduki behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko genero-berdintasunaren arloko lege-esparruaren arabera:

- o **4/2005 Legea**, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako
- o **40/2012 Ebazpena**, abuztuaren 21ekoa, Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzko jarraibideak onartzen dituena, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen dituena.

GEAE txostena egitea, beraz, araudian ezarritakoa betetzea da. Hala ere, aipatu behar da Legearen eskakizunak zabalagoak direla eta betetze hutsak, ez dakarrela eragin positiborik bere horretan.

OHARRA: EMAKUNDEren 'Generoaren araberako Eraginaren Ebaluazioa Lurralde Plangintzan eta Hirigintzan' gidak, lurralde-plangintzari eta hirigintzari lotutako berdintasun-alorreko lege-agindu nagusiak jasotzen ditu.

¹⁶ OHARRA: 4. GIZARTE-ARAU BALIOAK eta 5. BERDINTASUN-ARLOKO ARAUDIA irizpideak aztertze orduan, kasuan kasuko hirigintza-planak gai hauetan izan dezakeen inzidentzia kontutan harturik egingo da azterketa. Aurreikusi daiteke, 1. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA, 2. BALIABIDEETARAKO SARBIDEA eta 3. ERABAKIETAN PARTE HARTZEA irizpideak sakonago aztertze gaiak izango direla, hauekin alderatuz.

6. HIRI-ESPazioEN EBALUAZIOA ¹⁷ (Col·lectiu Punt 6)

1. Egoeraren analisia

Abiapuntuko egoera identifikatzeko, **hirigintza-planak aintzat hartzen duen eremuko eta honen inguruko hiri-espazioen ebaluazioa** egin behar da.

Aztertu beharreko **hiri-ezaugarriak 5 gaietan** antolatu dira, nahiz eta alderdi guztiak zeharka erlazionaturik dauden modu integratu batean. (Plan bakoitzaren kasuan garrantzitsuak direnak aztertuko dira):

6A. Hurbiltasuna

6B. Autonomia eta segurtasun pertzepzioa

6C. Aniztasuna, espazio publikoa eta irisgarritasuna

6D. Bizitasuna

6E. Mugikortasuna eta garraio publikoa

6F. Ordezkatagarritasuna eta hiri-seinaleztapena

Era berean, planak ordenatzen duen **aplikazio-eremuaren arabera** ondorengo **hiru hiri-espazio** motetatik batean edo bestean zentratuko dugu azterketa (edo bat baino gehiagotan):

hiri-espazioak

- auzoa eta eguneroko sarea
- harremanetarako espazioak
- eguneroko ekipamendua

2. Eraginaren balorazioa

Abiapuntuko egoera identifikatu edo zehaztu ondoren, aztertuko da, bigarrenik, ea ematekoa den hirigintza-planak, une horretan egituratuta dagoen moduan, emakumeen eta gizonen **eguneroko bizitzetara eta hauen beharretara egokitzen diren espazio, eraikin edota inguruneak aurreikusten dituen, edo gaur egungo egoerari zer nolako ekarpenak egiten dizkion** aztertu diren gaiei dagokionez.

¹⁷ Hiri-espazioen ebaluazioa egiteko ondorengo dokumentuetan oinarritu gara:

Adriana Ciocchetto-ren *Espacios para la Vida Cotidiana. Auditoría de Calidad Urbana con perspectiva de Género*. Bartzelona, Col·lectiu Punt 6, 2014.

EUSKO JAURLARITZAKO Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala. Antolamendu aruak.

Hiriko espazioen ebaluaketarako aplikazio-eremuak edo hiri-espazioak

AUZO ETA EGUNEROKO SAREA

Auzoa da analisi-unitate gisa zehaztutako eremua. Hiri-sare batek eta ezaugarri amankomunak dituzten bizilagunek osatzen dute auzo bateko eguneroko sarea. Errealitate hau identifikatu egin behar da, eta baliteke auzoko mugekin bat ez etortzea. **Auzoan bizi diren pertsonen beren eguneroko beharrak asetzeko erabiltzen dituzten harreman-espazioek, eguneroko ekipamenduek, saltokiek, garraio publikoko geltokiek eta horiek lotzen dituzten kaleek osatzen dute auzoko eguneroko sarea.**

- **Bizilagun-eskala (5 minutu oinez, 250 eta 300 m).** Etxearen inguruko espazioak izanik, amankomuneko bizitza ahalbidetzen dutenak dira (bilkurak, bilera informalak, afariak...), bizilagunekin partekatzen den espazio hurbila. Adinekoek, mugitzeko zailtasunak dituztenek edo haurrak dituztenek erraz egin dezaketen distantziara dago. Etxebizitzaren eta kalearen arteko tarte-espazioak, egoteko aukera ematen duten izkinak edo funtzio hori betetzen duen zehaztu gabeko espazio bat izan daiteke. Erabilerak zehaztuko ditu espazio hauek.
- **Auzo-eskala (10 minutu oinez, 600 m - 800 m inguru).** Auzotarren espazio zabaldua, non eguneroko zereginak egiten diren. Harremanetarako guneak, eguneroko ekipamenduak, egunerokotasunerako beharrezkoak diren saltokiak eta garraio publikoa barne hartu beharko lukeen eremua.
- **Auzoz gairik eskala (20 minutu oinez edo garraio publikoan, 1.300 m - 1.500 m inguru).** Auzo-escalatik kanpo gelditzen diren harreman-espazioak, ekipamenduak eta saltokiak, auzo-escalan egoteko beharrik ez dutenak.

HARREMANETARAKO ESPAZIOA

Pertsonen elkar eragiteko espazioak dira, hiri-ingurunean (auzoan) eguneroko jarduerak egiteko unean, batez ere zaintza lanekin zerikusia dutenak, kohesio soziala eta elkarri laguntzeko sareak indartzea ahalbidetzen dutenak. Era berean, aisialdirako, jolaserako eta topaketarako espazioak dira, komunitatearen elkarbizitza ematen den espazioa, elkar ezagutu eta gizatalde baten parte identifikatzeko aukera ematen dute. Auzo-escalako plaza edo espazio irekiez gain, halaber, kaleak, izkinak, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko tarteko espazioak edo funtzio horiek betetzen dituzten zehaztu gabeko beste espazio libre batzuk pertsonen arteko harreman-espazioen parte dira.

EGUNEROKO EKIPAMENDUA

Bizi-etapa guztietan eguneroko bizitza garatzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko euskarri gisa ezinbestekoak diren ekipamenduak. Era berean, bizikidetzara, trukea, elkar eragitea eta elkarrekiko laguntza sortzen diren komunitate baten erreferentzia-espazioak. Gutxieneko ekipamendu batzuk eguneroko sarearen barruan egon beharko dira, auzo edo udalerrri bakoitzaren berezitasunaren arabera, eta kasu bakoitzean biztanleriaren tamainaren eta kopuruaren arabera izango da. Behar bati baino gehiagori erantzuteko programa espezifikorik gabeko espazio polifuntzionalak egotea gomendatzen da.

6A. HURBILTASUNA

Hurbiltasuna, espazioan eta denboraren arabera kokapen gertuari deritzo, bai eta oztoporik gabeko **oinezkoen konektagarritasuna** ere, harreman-espazioen, eguneroko ekipamenduen, garraio publikoko geltokien, saltokien eta bizitokien artean. Horrela, erabilera desberdinak lotzen dituzten ibilbidean zehar, edozeinek eguneroko jarduerak oinez egiteko aukera dago, gorputz aniztasunak kontuan hartuta.

Helburutzat dugu **hurbileko hirigintza** sustatzea, garapen urbanistiko monofuntzionalak saihestuz, **erabileren nahasketa** sustatzea. **Hiri trinkoaren ereduak**, distantzia labur eta gertukoekin, garraio publiko sistema onarekin eta espazio publiko seguru eta kalitatezkoekin, zaintza-beharrei hobeto erantzungo die.

Hiri-espazio moten arabera **hiru eskala hurbilak** identifikatzen dira, auzoa eta eguneroko sarea osatzen dutenak (COL-LECTIU PUNT 6):

- **bizilagun-eskala** (5 minutu oinez, 250 m eta 300 m)
- **auzo-eskala** (10 minutu oinez, 600 m - 800 m inguru)
- **auzoz gairako eskala** (20 minutu oinez edo garraio publikoan, 1.300 m - 1.500 m inguru).

Analisirako zenbait eremu:

A.1. HURBILTASUNA AUZOA ETA EGUNEROKO SAREAN

Helburua: Erabilera desberdinen (harremanetarako espazioak, ekipamenduak eta saltokiak) banaketak eta konexioek eguneroko bizitzako jarduerak egitea ahalbidetzen duten ebaluatzea, oinezkoen ibilbideei eta garraio publikoari lehentasuna emanez.

		Planoan grafikoki identifikatu:	
A.1.1. Erabilera desberdinen distribuzioa eta hauen arteko distantziak		BAI	EZ
Harreman-espazioak existitzen diren (gertuko eskalan 300 m-tara oinez, auzoan 600 m-tara, edo auzoz gairako eskalan), eta hauen distribuzioa homogeneoa den			
	Espazio publikoak eta jolaserako espazioak existitzen diren (bizilagun eskalan 300m-tara)		
	Espazio berdeak existitzen diren (bizilagun eskalan 300m-tara, eta auzo-eskalan 600m-tara)		
	Estalitako espazio libreak existitzen diren (auzo-eskalan 600m-tara)		
Eguneroko ekipamenduak existitzen diren (auzo-eskalan 600 m-tara), eta hauen distribuzioa homogeneoa den			
	- Osasun ekipamenduak (600m-tara)		
	- Hezkuntza ekipamenduak (haurtzaindegi, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, etabar) (600m-tara)		
	- Kultur ekipamenduak (600m-tara)		
	- Zaintza ekipamenduak (600m-tara)		
	- Kirol ekipamenduak (eraikinean nahiz aire librean) (600m-tara)		
Harreman-espazioen distribuzioa eguneroko ekipamenduekiko hurbila den oinez (gehienez oinez 600 m-ko erradioan dauden)			

Eguneroko saltokietara sarbidea existitzen den (gertuko eskalan 300m-tara, eta auzoan 600m-tara)		
A.1.2. Garraio publikoaren zein bidegorriaren hurbiltasuna eta konexioak	BAI	EZ
Garraio publikoko geltokiak haien artean gertu dauden (gehienez 300m-tara)		
Bidegorri sarera hurbiltasuna dagoen (300m-tara irisgarria den auzoko edozein puntutik)		
Auzoko garraio publikoak 600m-ko erradiotik kanpo geratzen diren ekipamenduetara konexioa ematen duen, geltokia ekipamendutik gehienez 300 m-tara geratzen delarik		
A.1.3. Hiri-konektagarritasuna	BAI	EZ
Eguneroko sareko kaleetan, oinezko konektibitatea oztopatzen duten baldintzak dauden		
A.2. HURBILTASUNA HARREMAN-ESPAZIOAN		
Helburua: Harreman-espazioaren kokapenak eta ondorengoekiko loturak (etxebizitzak, ekipamenduak, saltokiak, garraio publikoa eta bestelako harreman-guneak) eguneroko sarearen barne egotea ahalbidetzen duten ebaluatzea.		
	Planoan grafikoki identifikatu:	
A.2.1. Harreman-espaziotik distantzia oinez erabilera desberdinetara	BAI	EZ
- Ekipamenduetara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan) - Eguneroko saltokietara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan) - Autobus geltoki batetara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan) - Beste harreman-espazio batera sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan)		
A.2.2. Hiri-konektagarritasuna eta kokapena	BAI	EZ
- Etxebizitzen hiri-sare finkatuaren baitan kokatzen den harreman-espazioa - Oinezko konektibitatea oztopatzen duten baldintzarik gabeko inguruan kokatzen den		
A.3. HURBILTASUNA EKIPAMENDUAN		
Helburua: Ekipamenduaren kokapenak eta ondorengoekiko loturak (etxebizitzak, harreman-espazioak, saltokiak, garraio publikoa eta bestelako ekipamenduak) eguneroko sarearen barne egotea ahalbidetzen duten ebaluatzea.		
	Planoan grafikoki identifikatu:	
A.3.1. Ekipamendutik distantzia oinez erabilera desberdinetara	BAI	EZ
- Harreman-espazioetara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan) - Eguneroko saltokietara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan) - Autobus geltoki batetara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan) - Beste ekipamendu batetara sarbidea existitzen den (auzoan, 600 m-ko erradioan)		
A.3.2. Hiri-konektagarritasuna eta kokapena	BAI	EZ
- Etxebizitzen hiri-sare finkatuaren baitan kokatzen den ekipamendua - Oinezko konektibitatea oztopatzen duten baldintzarik gabeko inguruan kokatzen den - Ekipamendura sarrera auzoko pertsonengandik hurbil dagoen		

6B. AUTONOMIA, SEGURTASUN PERTZEPZIOA

Pertsonak **autonomia** dute okupatzen dituzten **espazioak segurutzat hautematen dituztenean**, inolako oztoporik gabe erabiltzeko gaitasunak eta **irisgarritasuna bermatzen duen espazio** batek konfiantza sortzen du. Pertsonen autonomia-beharra kontuan hartzen ez denean, konfiantzarik ematen ez duten espazioak sortzen dira, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat edo haur-kotxeak edo erosketa-orgak dituzten pertsonentzat irisgarriak ez direlako; segurtasunik ezaren pertzepzioa transmititzen duten espazioak dira, eta, beraz, biztanleriaren zati bat erabiltzearen beldur izango da; diseinuaren ondorioz, adineko pertsonen, mendeko pertsonen edo haurren autonomia sustatzen ez duten espazioak dira, eta pertsona zaintzaile bat egotera behartzen dutenak.

Espazio urbanoen segurtasunak hirian egiten ditugun mugimenduak baldintzatzen ditu, beldurrak eta segurtasunak esanahi ezberdinak ditu klasea, generoa, sexua, jatorria eta kulturaren arabera, besteak beste. Segurtasunaren aldarrikapenak ez du inolaz ere kaltetutako kolektiboen biktima eta ahultasun irudia betikotu nahi, helburua espazio urbanoaren gogoeta bat bultzatzea da, espazio publikoan denok seguru sentitu gaitezen.

Analisirako zenbait eremu:

B.1. AUTONOMIA AUZOA ETA EGUNEROKO SAREAN

Helburua: Kaleek, autobus-geltokiek eta harreman-espazioek modu independentean eta segurtasun-pertzepzioarekin erabiltzea ahalbidetzen duten ebaluatzea.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
	BAI	EZ
B.1.1. Oinezkoen erabilerarako baldintzak auzoko kaleetan		
- Oinezkoek lehentasuna duten kaleak existitzen diren		
- Atsedenerako bankuak dauden kaleetan		
- Oinezkoentzako argiztapena dagoen kaleetan		
- Segurtasunik eza sortzen duten elementu fisikoak dauden kaleetan		
- Auzoko kaleak irisgarriak diren		
- etabar		
B.1.2. Autobus geltokien kokapena eta egoera	BAI	EZ
- Garraio publikoaren geltokiak ikusgarritasuna duten inguruneetan kokatuta dauden		
- Garraio publikoaren geltokiak seguruak eta irisgarriak diren		
B.1.3. Segurtasun pertzepzioa auzoan	BAI	EZ
- Segurtasun pertzepzioa dagoen auzoan, edo punturen batean segurtasunik ezaren pertzepzioa dagoen		

B.2. AUTONOMIA HARREMAN-ESPAZIOAN

Helburua: Ebaluatzea ea harreman-espazioa eta ingurunea irisgarriak diren eta segurtasun-pertzepzioa sortzen duten, modu autonomoan erabiltzeko aukera emanez.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
B.2.1. Harreman-espazioaren zein inguruaren diseinua	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Espazioaren diseinuak ikusgarritasun baldintzak betetzen dituen (1,60 metro baino altuago diren elementu opakorik ez dagoen, elementu gardenak erabiltzen diren...) - Espazioaren perimetroa kalerantz irekita dagoen, barruranzko zaintza informala ahalbidetzen delarik, eta inguruko eraikinen fatxadek espaziora begiratzen duten - Ibilbide alternatiboak eskaintzen diren espazioaren baitan, eta seinalizatuta dauden - Ingurunearen informazioa ematen den (auzoarekiko kokapen-mapa) - Irisgarritasuna betetzen den - Oinezkoentzako argiztapen jarraia dagoen espazioan zein inguruan - Aztergai dugun espaziora oinezkoentzako lehentasuna duten bideetatik iris daitekeen - etabar 		
B.2.2. Segurtasun pertzepzioa eta espazio zein ingurunearen mantenua	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Segurtasun pertzepzioa dagoen espazioan eta ingurunean - Espazioaren eta ingurunearen mantenua nolakoa den 		

B.3. AUTONOMIA EKIPAMENDUAN

Helburua: Ebaluatzea ea ekipamendua eta honen ingurunea irisgarriak diren eta segurtasun-pertzepzioa sortzen duten, modu autonomoan erabiltzeko aukera emanez.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
B.3.1. Ekipamenduaren zein inguruaren diseinua	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Eraikinaren fatxadek kalera begiratzen duten, inguruaren zaintza informala egitea ahalbidetuz - Eraikinak espazio publikoruntz txoko edo espazio ezkuturik sortzen ez duen (eta horrela bada, neutralizatzeko neurriak dauden: ikus-eremua zabaltzeko ispiluak, bide alternatiboak, elementu gardenak ikusgarritasuna hobetzeko...) - Eraikinaren sarreran espazio irisgarria dagoen - Oinezkoentzako argiztapen jarraia dagoen ekipamenduaren inguruan - Aztergai dugun ekipamendura oinezkoentzako lehentasuna duten bideetatik iris daitekeen 		
B.3.2. Segurtasun pertzepzioa eta eraikin zein ingurunearen mantenua	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Segurtasun pertzepzioa dagoen ekipamenduan eta ingurunean - Ekipamenduaren eta ingurunearen mantenua nolakoa den 		
B.3.3. Bainu publikoetara sarbidea	BAI	EZ
Kaletik irisgarria den bainu publikorik badagoen, eta seinalizatua dagoen		

6C. ANIZTASUNA, ESPAZIO PUBLIKOA ETA IRISGARRITASUNA

Aniztasuna profil sozial, fisiko eta funtzionala nahastean datza, pertsonen, jardueren eta erabileren aniztasuna ahalbidetzen dituen, pertsonen beharrian desberdinei erantzunez, besteak beste, generoaren, sexuaren, adinaren, aniztasun funtzionalaren, jatorriaren, kulturaren eta gizarte-egoeraren arabera.

Ezinbestekoa da esperientzia eta egunerokotasun ezberdina bizitzen duten pertsonak kontuan hartzea, baita bizipen horien ondorioz eratorri daitezkeen behar ezberdinei erantzutea. Hau kontuan hartu ezean, erabiltzaile-profil eskusibotasuna dakar, neutrala eta inklusiboa ez diren espazioak sortuz.

Espazio publikoa eta irisgarritasuna

Pertsonak premia desberdinak dituzte hiri-espazioari dagokionez, eguneroko bizitzan beren gain hartzen dituzten genero-roletatik eratorriak. Zaintza-lanak beren gain hartzen ez dituzten pertsonak hiria era mugatuagoan erabiltzen dute, ordutegi finko jakin batzuetan enplegu- eta aisialdi-lekuetara joatean zentratua. Emakumeek, berriz, zaintza-lanen ardura izanik, hiriek dituzten eguneroko oztopo eta zailtasunekin egiten dute topo, irisgarritasun-gaiekin, esaterako.

Analisirako zenbait eremu:

C.1. ANIZTASUNA AUZOA ETA EGUNEROKO SAREAN

Helburua: Ebaluatzea ea erabileren, jardueren eta desplazamendu modalitateen aniztasun eta nahasketak, ezaugarri desberdinak dituzten pertsonen beren premiak ebatzea ahalbidetzen dieten.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
C.1.1. Erabilera- eta pertsona-aniztasuna	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko oinarrizko ekipamenduak existitzen diren - Askotariko merkataritza duten kaleak existitzen diren - Etxebizitza erabilerak bestelako erabilerekin nahasturik dauden auzoko hiri-sarean (ekipamenduak, saltokiak, tailer txikiak, bulegoak...) - Biztanleria modu homogeneoan banatzen den auzoan, edo profil zehatz batzuen arabera sektoreka antolatuta dagoen - Auzoko harreman-espazioak pertsona profil desberdinek erabiltzen dituzten - Jarduerak antolatzeko auzokideentzako espazio estalia badagoen 		
C.1.2. Desplazamendu modalitate desberdinak	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Desplazamendu-modalitate desberdinak bizikidetzan dauden kaleak existitzen diren - Garraio publikoaren ordutegi anitzak dauden - Auzora sartu ahal izateko aparkaleku publikoak existitzen den 		

C.2. ANIZTASUNA HARREMAN-ESPAZIOAN

Helburua: Ebaluatzea ea espazioak jarduera desberdinak egitea eta ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak egotea ahalbidetzen duen.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
	BAI	EZ
C.2.1. Espazioaren diseinua eta jarduerak		
Espazioak egoteko, biltzeko, jarduera fisikoa egiteko eta adin desberdinetako haurren jolaserako aukera ahalbidetzen duen		
Espazioaren erabilera errazten duten elementuak dauden (parke, plaza eta espazio publikoetan):		
Atsedenerako bankuak (jarduerekin lotutako eguzki- eta itzal-kokapen desberdinetan dauden, eta elkarrekintza sustatzen duten).		
Ur-iturria		
Bainu publikoak		
Mahaiak		
Paperontziak		
Bizikleta eta orgatxoentzako aparkalekuak		
Edoskitzerako edo haurren higienarako egokitutako espazioak		
Erabilera desberdinak ahalbidetzen dituzten zoladuren aniztasuna dagoen (parke, plaza eta espazio publikoetan): belarra, harea eta irristakorra ez den material leuna.		
Itzala ematen duten zuhaitzak eta landaredia dagoen		
Espaloiak zabalak diren, orgatxoak, adinekoen edo mugikortasun urriko pertsonen gurpil-aulkiak eta erosketa-orgak igarotzeko		
Maila aldaketetan materialak, koloreak eta testurak bereizten diren		
Pendiente gutxiko arrapalak eta baranda erosoak dauden		

6D. BIZITASUNA

Espazio baten **bizitasuna, pertsonen eta ekintza ezberdinen aldiberekotasunaren bidez eta etengabeko presentziarekin** lortuko da. Harremana, sozializazioa eta elkar laguntza bultzatzen dituzten kaleetan, harreman espazioetan eta ekipamenduetan lortuko da bizitasun hori. Dentsitate txikiak eta erabilera ezak bizitasun eskasa izango du, bai eta eguneko denbora-tarte mugatu batean erabiltzen den espazio monofuntzional batek, funtzio bakarreko eta dentsitate txikiko bizitegi-eremuak, merkataritza- edo negozio-guneak, edo eta eraikinen eta kalearen arteko erlazioa falta denean. Beraz, oraindik urbanizatu gabeko lurzoru gehiago kontsumitzearen ordez, **hiriaren bizitasunaren onerako dentsifikazioaren alde egin behar da.**

Analisirako zenbait eremu:

D.1. BIZITASUNA AUZOA ETA EGUNEROKO SAREAN

Helburua: Ebaluatzea ea kaleen konfigurazioak eta jarduerak, erabileren aldiberekotasuna eta jarraitutasuna ahalbidetzen duten.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
D.1.1. Eguneroko sareko kaleen diseinua eta erabilerak	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Eguneroko sareko kaleetan, pertsonak harremanetarako, egoteko, bilerarako edo jolas-jardueretarako erabili ditzaten espazio eta altzariak existitzen diren (hau da, kaleak desplazamendurako soilik ez diren) - Behe-solairuak espazio publikora irekita dauden kaleak existitzen diren - Ea erabilera publikoen kontzentrazioa dagoen kaleetan (komertzioak, ekipamenduak...), zeinak jardueren aldiberekotasuna sortzen duen auzoan - Egunean zehar jarduerak dituzten kaleak existitzen diren - Jarduera mugikorak existitzen diren auzoko kaleetan (merkatua, puntu garbia, festak, <i>bibliobus</i>...) 		
D.1.2. Ekipamendu eta harreman-espazioen erlazioa kalearekin	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Ekipamenduek tarteko espazioak dituzten, kalearekin erlazioan - Auzoko harreman-espazioek perimetroa kalera irekita duten, era horretan kaleko jarduerekin integratuz 		

D.2. BIZITASUNA HARREMAN-ESPAZIOAN

Helburua: Ebaluatzea ea espazioaren diseinuak eta jarduerak, erabileren aldiberekotasuna eta jarraitutasuna ahalbidetzen duten.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
D.2.1. Espazioaren diseinua, kokapena eta irekiera	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Espazioaren diseinuak jardueren aldiberekotasuna ahalbidetzen duen - Euria egiten duenerako, espazioaren erabilera errazten duten elementuak dauden (pergola, galeria edo portxeak...) - Ordutegi desberdinetan jarduerak egitea ahalbidetzen duten espazioak existitzen diren (ordu jakin batean ixten ez direnak) 		

D.3. BIZITASUNA EKIPAMENDUAN

Helburua: Ebaluatzea ea ekipamenduaren diseinuak eta jarduerak, erabileren aldiberekotasuna eta jarraitutasuna ahalbidetzen duten.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
D.3.1. Ekipamenduaren diseinua, kokapena eta kalearekiko erlazioa	BAI	EZ
- Ea eraikinaren sarrera harremantzeko espazio batera irekita kokatuta dagoen - Eraikinaren barrualdeko sarreran harremanerako espazioa dagoen, esertzeko bankuekin - Eraikinaren diseinuak, kaletik jarduera batzuk ikustea ahalbidetzen duen		

6E. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA

Orain arte hainbat herrialdetan egindako ikerketak bat datoz egitate batean: **emakumeen eta gizonen mugikortasun-jarraibideak desberdinak dira**. Emakumeek gutxiago erabiltzen dute autoa, eta, horregatik, garraio publikoaren mende daude gizonak baino proportzio handiagoan; joan-etorri gehiago egiten dituzte hurrekin edo kargatuta, eta gehiago bidaiatzen dute puntako ordutegietatik kanpo (neurri batean, askok lanaldi partzialeko lanak dituztelako). Mugikortasun-azpiegituren diseinuak, ustez unibertsalak diren jarraibideetatik eginda, lan-bidaia argi eta garbi baloratzen ditu joan-etorrietarako beste edozein arrazoiren gainetik¹⁸.

Gainera, gaur egun ere, emakumeek hartzen dituzte beren gain zaintza-lanak, eta, beraz, zailtasun handiagoak dituzte ordaindutako lana eta etxeko lana bateragarri egiteko, eta irisgarritasun-muga handiagoak dituzte garraio publikoan.

Analisirako zenbait eremu:

Azterketa eremuko zein inguruko mugikortasun-azterketak, irisgarritasuna, segurtasuna

Helburua: Aztertzea zein diren mugikortasun modalitateak eta erabiltzaile zein erabilera-joerak, ebaluatzea garraio publikoaren irisgarritasuna eta segurtasun-pertzepzioa nolakoak diren

Azaldu eta/edo planoan grafikoki identifikatu:

E.1. Eremuko eta inguruko mugikortasun azterketak (sexuaren arabera bereizitako datuak)

Erabiltzaile-profilak:

- Zeintzuk **lekualdatzen** dira gehien **lanegunetan**, eta nola, hiri barruan?
- Zeintzuk dira **garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak** udalerrian/auzoan/aztergai dugun eremuan?
- **Zein garraio publiko dira erabilienak?** Zein erabiltzaile mota gailentzen da? (hiri-autobusak, hiriarteko autobusak, trena...)
- Zein dira emakumeen zein gizonen **lekualdaketarako arrazoi nagusiak?** (profesionalak, zaintza lanak, erosketak, aisialdia...). Aipamen berezia zaintza jardueri zuzenduriko mugikortasunari: '*zaintzaren mugikortasuna*¹⁹' kontzeptua
- Zein dira **lekualdatze gehien helmugak** emakumeen eta gizonen kasuan? (osasun-ekipamenduak, merkataritza-ekipamenduak, kirol-ekipamenduak...)

¹⁸ EUSKO JAURLARITZA – Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (2010). *Hiri analisirako manuala: generoa eta eguneroko bizitza*.

¹⁹ SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés. *Perspectiva de Género en las Directrices de Ordenación Territorial del País Vasco. Propuestas de acción*, 2016.

Eremura joan-etorrien desplazamendu modalitateak nolakoak diren (oinez, bizikletan, garraio publikoa, ibilgailu partikularra...)		
Mugikortasun jasangarria eta aktiboa bultzatzen den: - Nolakoa da oinezkoen bideen konektagarritasuna aztergai dugun eremuan eta inguruan? - Nolakoa da bidegorri sarearen konektagarritasuna aztergai dugun eremuan eta inguruan?		
E.2. Garraio publikora irisgarritasuna	BAI	EZ
- Garraio publikoaren irisgarritasuna nolakoa den (gurpildun aukiekin, haurren orgatxoekin, erosketa orgatxoekin...) - Autobus geltoki inguruetan, pertsonen sartu-irtenetan oztopo egiten duten elementurik dagoen (zuhaitzak, paperontziak, farolak, publizitate elementuak...)		
E.3. Autonomia eta segurtasun pertzepzioa	BAI	EZ
- Garraio publikoaren geltokiak ikusgarritasuna duten inguruneetan kokatuta dauden - Garraio publikoaren geltokiak seguruak eta irisgarriak diren - Geltokien diseinuak segurtasun-pertzepzioan laguntzen duen (sartu-irtetzeko sarrera alternatiboak, material gardenak...) - Garraio publikoaren inguruko informazioa existitzen den eta argia den (ordutegiak, maiztasuna, konexioak...) - 'Eskaripeko geldialdiak' bezalako neurri berritzaileak existitzen diren. Zerbitzu honek gaez bi geralekuren arteko edozein puntutan emakumeak autobusetik jaisteko aukera ematen du, helmugatik hurbilago gelditzeko, segurtasuna areagotuz eta mugikortasuna erraztuz.		

6F. ORDEZKAGARRITASUNA ETA HIRI-SEINALEZTAPENA

Ordezkarritasuna lortuko da, **komunitate osoaren ikusgarritasun** erreala eta sinbolikoa aitortzen direnean, hau da, hirian kolektibo anitz baten presentzia dagoenean. Memoria, gizarte- eta kultura-ondarea berdintasunean balioestea eta pertsonen hiriko erabakietan parte hartzea ezinbestekoa da honetan. Oraingo edo iraganeko gizarteko parte diren edo izan diren pertsonen merezi duten ordezkagarritasuna eskainiz, imaginario kolektiboan dagokien lekua ematen zaie.

Teresa del Valle antropologoak **kale izendegia eta memoriaren garrantzia** azpimarratzen ditu. Bere aburuz: “Memoria da gizarte batek garrantzitsu jotzen duena eta datozen belaunaldiei transmititu nahi diena; kaleen izenak, eraikinen izenak, monumentuak eta artearen errepresentazioak hiri batean oso garrantzitsuak dira memoria sortzen dutelako, eta gizarte batek garrantzitsu jotzen dituenak adierazten dituztelako”. Arlo horretan, emakumeek historian izandako papera ahaztu ohi da.

Horrela, **berdintasunezkoak ez diren ikonografia** jakin batzuk orokortu dira. Hiria seinaleztatzeko modu ohikoenek eta tradizionalak eragin handia dute genero-estereotipoen eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen betikotzean. Era berean, espazio publikoetan oraindik ere **irudi estereotipatu edo sexistak eta hizkuntza ez-inklusibo dituzten iragarkiak edo publizitate elementuak** daude, eta horiek ez dute laguntzen hiri berdinzaleago bat sortzen.

Analisirako zenbait eremu:

F.1. ORDEZKAGARRITASUNA AUZOAN ETA EGUNEROKO SAREAN

Helburua: Komunitateak espazio publikoan eta ekipamenduetan duen aitortzea eta ekitatea ebaluatzea.

	Planoan grafikoki identifikatu:	
F.1.1. Komunitatearen memoria aitortzea	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Komunitatearen memoria auzoko ondare sozial eta kultural gisa mantentzen duten espazioak edo elementuak existitzen diren kaleetan eta espazio publikoan (elementu eskultorikoak edo bestelakoak) - Zaintza lanak eta lan erreproduktiboaren balioa erakusten duten elementuen presentzia badagoen 		
F.1.2. Presentzia hirian: kale izendegian ekitatea	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Kaleen, plazen, parkeen, ekipamenduen, eraikinen izendegian ekitatea dagoen emakume eta gizonen artean - Lorpen profesionalengatik, sozialengatik edo pertsonalengatik garrantzitsuak diren emakumeen (eta batez ere tokikoak direnen) izenak dituzten kaleak, plazak, parkeak, eraikinak... badauden 		
F.1.3. Hiri-seinaleztapen ez diskriminatzailea	BAI	EZ
<ul style="list-style-type: none"> - Hiri-seinaleztapenaren oinarri den ikonografian lengoia bisual ez diskriminatzailea erabiltzen den - Irudi diskriminatzaileak existitzen den auzoko espazio publikoetan ikusgai dauden publizitate-elementu, kartel edo iragarkietan (genero, sexu, adin zein jatorriari dagokionez) 		

2. Bibliografia

DONOSTIAKO UDALA. (2019)

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak.

DONOSTIAKO UDALA. (2008)

Hirigintza Integratzailea.

BOFILL LEVI, Anna. (2008)

Guia per al planejament urbanístic i l'ordenació urbanística amb la incorporació de criteris de gènere. Barcelona, Institut Català de les Dones.

https://dones.gencat.cat/web/.content/03_ambits/docs/publicacions_eines11.pdf

CIOCOLETTO, Adriana. (2014)

Espacios para la Vida Cotidiana. Auditoría de Calidad Urbana con perspectiva de Género. Barcelona, Col·lectiu Punt 6.

<http://www.punt6.org/wp-content/uploads/2016/08/EspaciosParalaVidaCotidiana.pdf>

EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea. (2018)

Generoaren Araberako Eraginaren Ebaluazioa Lurralde-Plangintzan Eta Hirigintzan.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/urbanismo_eu.pdf

EUDEL - Asociación de Municipios Vascos eta EMAKUNDE - Instituto Vasco de la Mujer. (2018)

Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/gida.genero.eraginaren.aurretiazko.ernaluazioa.pdf

EUSKO JAURLARITZA – Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (2021)

Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala. Antolamendu aruak.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ptp_donostialdea_aprob_2010/eu_ptp/adjuntos/Documento%20C_%20Normas%20de%20Ordenacion%20EU.pdf

EUSKO JAURLARITZA – Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (2010)

Hiri analisirako manuala: generoa eta eguneroko bizitza.

https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/libro/l_047617_0001_0001/es_def/index.shtml

GENERALITAT VALENCIANA - Dirección General de Vivienda, Rehabilitación y Regeneración Urbana. (2017)

Set para introducir la perspectiva de género en el proceso urbano.

https://politicaterritorial.gva.es/documents/168489756/0/SET_cas_link.pdf/0cf2c19d-e679-4c10-810a-fea0dd4fb484

ORTIZ DE LEJARAZU, Helena eta CAMPELO, Sonia. (2020)

Evaluación de Impacto de Género de los Planes Generales de Ordenación Urbana: Guía explicativa y herramientas de implantación. Gasteiz, Red Kuorum.

SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés. (2004)

Urbanismo con perspectiva de género. Sevilla, Instituto Andaluz de la Mujer.

<https://www.juntadeandalucia.es/iam/catalogo/doc/iam/2004/18542.pdf>

SÁNCHEZ DE MADARIAGA, Inés. (2016)

Perspectiva de Género en las Directrices de Ordenación Territorial del País Vasco. Propuestas de acción.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Genero Politiken UNESCO Katedra.

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/es_def/adjuntos/Perspectiva%20de%20Género%20en%20las%20DOT%20\(ISdM\).pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/es_def/adjuntos/Perspectiva%20de%20Género%20en%20las%20DOT%20(ISdM).pdf)

EUSKO JAURLARITZA (2012)

40/2012 Ebazpena, abuztuaren 21ekoa, Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzko jarraibideak onartzen dituen, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen dituen.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/09/1204276e.pdf>